En caso de empate a votos se celebrará una nueva votación a continuación del escrutinio. En la nueva votación únicamente participarán las primeras candidaturas con igualdad de votos.

Si persiste el empate, resultará elegida la candidatura encabezada por una mujer.

Si persiste el empate, la Junta Electoral procederá, en el plazo máximo de siete días, a un sorteo entre las candidaturas empatadas.

Artículo 53.- Falta de candidaturas

En el supuesto de no presentarse candidatura alguna la Junta Electoral volverá a abrir un nuevo plazo de presentación de candidaturas.



En el supuesto de que tampoco se presenten candidaturas en el segundo plazo, la Junta Electoral comunicará dicha situación a quien ejerza la presidencia en funciones de la Federación al objeto de que convoque una Asamblea General Extraordinaria para acordar la disolución de la Federación.

Artículo 54.- Candidatura única

Cuando exista una sola candidatura a la Presidencia de la Federación no será necesaria la celebración de votación y la Junta Electoral procederá a proclamar como Presidente de la Federación al candidato presentado.

Artículo 55.- Acta del escrutinio

Desarrollada la votación, la Mesa Electoral redactará el acta del escrutinio al objeto de que sea remitida con la mayor brevedad, junto con las papeletas de voto, a la Junta Electoral.



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKO
ETA KULTURA SAHIA
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud y Deportes

Los/as interventores/as de las candidaturas tendrán derecho a obtener una certificación de dicho documento, si así lo solicitan.

La Junta Electoral, recibida el acta con los resultados del escrutinio y con las incidencias de la votación, proclamará provisionalmente a quien encabece la candidatura ganadora como Presidente/a de la Federación.


En los dos días hábiles siguientes la Junta Electoral publicará los resultados provisionales que deberán exponerse en la Federación Vasca y en las Federaciones Territoriales y que podrán ser recurridos ante la misma en el plazo de dos días hábiles, quien resolverá en el plazo de cuatro días naturales, haciendo públicos los resultados definitivos.


Una vez proclamada provisionalmente la candidatura ganadora y resueltas, en su caso, las reclamaciones o recursos presentados, se realizará la proclamación definitiva. A partir de este momento, el cargo electo podrá ejercer sus funciones sin necesidad de acto formal de toma de posesión.



INDICEARTICULOS

<u>CAPITULO I</u>	DISPOSICIONES GENERALES	1 - 3
<u>CAPITULO II</u>	JUNTA ELECTORAL Y MESA ELECTORAL	4 - 15
<u>CAPITULO III</u>	CENSO ELECTORAL	16 - 21
<u>CAPITULO IV</u>	VOTO POR CORREO	22
<u>CAPITULO V</u>	INTERVENTORES/AS	23 - 26
<u>CAPITULO VI</u>	RECURSOS	27 - 28
<u>CAPITULO VII</u>	DIFUSION DEL PROCESO ELECTORAL	29 - 33
<u>CAPITULO VIII</u>	PROCEDIMIENTO PARA LA ELECCION DE LA ASAMBLEA GENERAL	34 - 43
<u>CAPITULO IX</u>	PROCEDIMIENTO PARA LA ELECCION DE PRESIDENTE/A	44 - 55






ESF



EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

FEDERACIÓN VASCA DE BALONCESTO

HAUTESKUNDE ARAUDIA



EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

HAUTESKUNDE ARAUDIA

EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- Federazio hauteskunde prozesuetako erregimen juridikoa

Euskal Saskibaloï Federazioko hauteskunde erregimena, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan, zeinen arabera Euskadiko kirol federazioen eraketa eta funtzionamendua arautuko diren, 2012ko otsailaren 19ko Ordenan, zeinen arabera hauteskunde araudiak elaboratzeko eta Euskadiko zein lurralde kirol federaziotako hauteskundeak ospatzeko irizpideak ezarriko diren eta Federazio Honetako Estatutuetan eta Araudietan xedatuarekin egokituko da.

2. Artikulua- Hauteskundeak ospatzeko eremua eta epeak

Lurralde Federazioek euren Batzorde Nagusia hautatzeko prozesuak amaitu beharko dituzte urte olinpiko bakoitzeko urriaren 31 baino lehen.


Euskadiko Federazioak bere hauteskunde prozesua amaitu beharko du urte olinpikoaren ondorengo urtarrilaren 31 baino lehen.

Euskadiko Federazioak bere hauteskunde prozesua abian jar dezake urte olinpiko bakoitzeko azaroaren lehen, Lurralde Federazioek euren Batzorde Nagusiko kideen hautaketa prozesuak amaitu ez izan arren. Halaber lehenago jarri ahal izango da abian, betiere Lurralde Federazio guztiek euren Batzorde Nagusiko kideen hautaketa prozesuak jadanik amaitu dituztenean.

Lurralde Federazioek, epemuga iristean euren Batzorde Nagusiko hautaketa prozesuak amaitu ez dituztenek, ez dute ordezkartzarik izango Euskadiko Federazioan, haiek amaitu arte.

Salbuespen modura eta aurretiaz espresuki emandako administrazio baimena dela medio, hauteskunde prozesuen hasiera atzeratu edo aurreratu egin ahal izango da, aurreikusitako hasiera datetan ospatzea ezinezkoa izaten denean. Espresuki emandako baimena eskuratzeko, beharrezkoa izango da eragindako federaziotan eta dagozkion administrazio organotan audientzia izapideak egitea.

Edozein kasutan, aurreko hauteskundetan hautatuak izan ziren administrazio organoen agintaldia hauteskunde deialdiarekin amaituko da eta une horretatik aurrera jardunekoak izango dira behin-behineko kudeatzaile modura. Artikulu honetan aurreikusitako epemugen aurretik hauteskunde deialdirik egiten ez denean, dagozkion agintaldiak epemuga horietan amaituko dira.



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

Gazterli eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud y Deportes

Jarduneko edo behin-behineko administrazio organo horiek arduratuko dira federazioa administratzeaz eta gestionatzeaz, dagokion hauteskunde prozesua amaitu arte, ohiko administrazio eta gestio jarduerak soilik bete ahal izanik, hala nola hauteskunde prozesuaren garapen egokia bermatzeko beharrezkoak izango lirakeen jarduera guztiak, hauteskunde prozesuetako arautegi erregulatzailan xedatuari jarraiki.

3. Artikulua- Egun baliiodunak

Abuztua ez da baliioduna izango hauteskunde xedeetarako.

Hauteskunde Araudi honetan aurreikusitako epeak, espresuki aurkakoa xedatzean izan ezik, lanegunei dagozkie, ez dira barne hartzen igandeak eta jai-egunak.

Bozkatzeko egunetan ez da ospatuko autonomia eremuko edo beheagoko lurralde eremuko izaera ofizialeko inolako kirol probarik edo txapelketarik.

II. KAPITULUA **HAUTESKUNDE BATZORDEA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA**

4. Artikulua- Hauteskunde Batzordearen funtzioak


Hauteskunde Batzordea da hauteskunde prozesua bultzatzeaz eta honen garapen egokia zaintzeaz arduratzen den organoa, federazioaren azken instantzian hauteskunde prozesua Zuzenbidearekin egokitzea bermatuz.

Hauteskunde Batzordeak ondorengo funtzioak beteko ditu:

- a) Hauteskunde errolda eta hauteskunde egutegia onartzea.
- b) Aurkeztutako hautagai-zerrendak onartzea, aldarrikatzea eta argitaratzea.
- c) Hauteskunde Mahaia esleitzea.
- d) Hautatutako hautagaiak aldarrikatzea.
- e) Aurkeztutako inpuñazioak, erreklamazioak eta eskaerak hala nola Hauteskunde Mahaiaren erabakien kontrako errekurtsioak ebatzea.
- f) Hauteskunde aginduak interpretatzea eta hautemandako araudi hutsuneak estaltzea.
- g) Boto-txartelen eredu ofizialak, gutun-azalak, hautagai-zerrenden inprimakiak eta antzeko dokumentuak onartzea.
- h) Egiten diren kontsultak ebatzea.
- i) Hauteskunde jardueren garapena baimentzea, Euskal Saskibaloï Federazioaren egoitzak ez diren bestelako lokaletan.
- j) Dagokion diziplina batzordea informatzea, diziplina arau-hausteak izan litezkeen hauteskunde prozesuarekin lotutako ekintza ezberdinen inguruan.
- k) Hauteskundeen garapena zuzenean eragin dezaketen bestelako egoerak.

5. Artikulua- Hauteskunde Batzordearen eraketa eta esleipena

Hauteskunde Batzordea Euskal Saskibaloï Federazioko Batzorde Nagusiak esleitu du, hauteskunde prozesuan bidea eman aurretik ospatzen den azken bileran.



Hauteskunde Batzordea hiru kide titularrekin eta gutxienez hiru izan beharko diren ordezkoeekin osatzen da.

Bere kideak Batzorde Nagusiak esleituko ditu, berehalako hauteskunde prozesuan hautagai bezala aurkezteko asmorik ez dutenen artean, irteten den Batzorde Nagusiak hautatzen dituenean. Horretarako, Hauteskunde Batzorde berriaren esleipenerako gai-zerrenda dakarren Batzorde Nagusiaren deialdia egin ondoren, parte hartzeko interesa dutenek euren asmoa jakinarazi beharko diote Euskal Saskibaloï Federazioko Idazkaritza Nagusiari, gutxienez Batzordearen ospakizun data baino zortzi egun natural lehenago, batzordekideak jakinaren gainean jartzeko, behar adinako aurrerapenarekin, dagozkion hautagaien identitatearen inguruan.

Batzorde Nagusiaren egoitzan bozkatu ondoren, esleipena boto kopuru handiena eskuratu dutenei dagokie, zenbaketan lortutako hurrenkera idatziz jasota geratzea beharrezkoa izanik, ordezkioak izango direnen esleipen xedeetarako. Hautagaien kopurua hautatu beharreko kide kopuruaren baliokidea balitz edo haren azpitik balego, haien aldarrikapenari ekingo litzaioke, hauteskundeak ospatzeko beharrik izan gabe.

Hiru postu titularrak eta gutxienez hiru ordezko estaltzeko behar adina pertsona boluntariorik ez balego, gainerakoak zozketa publikoaren bidez hautatuko lirateke, Batzorde Nagusiaren egoitzan, hautagaiak ez diren hautesleen artean.

Titular bezala esleitutako kideen artean presidentea eta idazkaria izango dira adin gehieneko eta gutxieneko pertsonak, hurrenez hurren.

Hauteskunde Batzordeko kide titularren arteko hutsuneak ordezko kideek estaliko dituzte, Batzorde Nagusiak esleitu dituen hurrenkeraren arabera.

Kidea izan ahal da hautatua izan den pertsona juridikoak esleitutako pertsona fisikoa.


Pertsona fisiko hori ezin izango du ordeztu pertsona juridikoak bere agintaldi osoan, heriotzaren, dimisioaren, gaitasun gabetzearen, gaixotasunaren edota pertsona juridikoaren borondatek haratago dagoen bestelako arrazoiren baten eraginez izan ezik.

Ezin izango dute Hauteskunde Batzordea eratu hautagai bezala aurkeztutako pertsonak, egoera hori suertatuko balitzaio aipatu Hauteskunde Batzordeko kideren bati, kargua utzi eta bere tokia esleitutako ordezkioak bete beharko luke.

6. Artikulua- Hauteskunde Batzordearen egoitza

Hauteskunde Batzordearen jarduneko zeregina Euskal Saskibaloï Federazioko lokaletan garatuko da.

Salbuespen modura, bere kideek aho batez adostuta, Hauteskunde Batzordeak bere funtzioak beste lokal batzuetan bete ahal izango ditu.



Ezin izango dute Hauteskunde Mahaia eratu hautagai bezala aurkeztutako pertsonak, egoera hori suertatuko balitzaio aipatu Hauteskunde Mahaiko kideren bati, kargua utzi eta bere tokia esleitutako ordezkioak bete beharko luke.

10. Artikulua- Hauteskunde Mahaiaren agintaldiaren iraupena

Hauteskunde Mahaiaren funtzioen iraunaldia lau urtekoa izango da, Batzorde Nagusiak epe hori amaitu aurretik kargutik kentzeko eta beste Hauteskunde Mahai bat esleitzeko aukerari utzi gabe.

Irteten den Hauteskunde Mahaia jardunean mantenduko da Hauteskunde Mahai berria esleitu bitartean.

11. Artikulua- Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren arteko bateraezintasunak

Ezin izango dute Hauteskunde Batzordea eta Hauteskunde Mahaia eratu uneko hauteskunde prozesuan hautagai bezala aurkeztutako pertsonak, Egoera hori Hauteskunde Batzordeko edo Hauteskunde Mahaiko kideren bati suertatuko balitzaio, kargua utzi eta bere tokia esleitutako ordezkioak bete beharko luke.

12. Artikulua- Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen adostasunak

Hauteskunde Batzordea eta Hauteskunde Mahaia eratzeko, organo elkargokideak izaten direnean, beharrezkoa izango da, gutxienez, bere kideetako biren presentzia.

Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren adostasunak hitzartuko dira, elkargokideak direnean, botoen gehiengoagatik. Berdinketaren kasuan, Presidentearen kalitate botoa lehenetsiko da.

Gehiengoaren kontrako botoak, betiere izendapenerako sortu direnean, Zuzenbidearen kontrako hitzarmenetatik eratorri litekeen erantzukizunetik salbuetsiko dira.

13. Artikulua- Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen adostasun errekurtsioak

Hauteskunde Mahaiak adostutako hitzarmenei errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaie Hauteskunde Batzordearen aurrean, bi laneguneko epean. Epe hori dagokion jakinarazpenaren edo, bere kasuan, argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Hauteskunde Batzordeak lehen instantzian adosten dituen hitzarmenei errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaie Hauteskunde Batzordearen aurrean, bi laneguneko epean. Epe hori dagokion jakinarazpenaren edo, bere kasuan, argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Errekurtsio horien ebazpenei errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaie Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean, zazpi laneguneko epean.

Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren hitzarmenak pertsona interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Euskal Saskibalo Federazioko iragarki-taulan argitaratuko dira.

14 Artikulua.- Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren aktak

Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren saio bakoitzetik akta bat altxatu beharko da, bertaratutako pertsona kide guztiek izenpetuko dutena.

15. Artikulua- Hauteskunde Mahaiko eta Hauteskunde Batzordeko kideen betebeharrak

Hauteskunde Batzordeko eta Hauteskunde Mahaiko kide izateko hautatutako pertsonak kargua onartu beharko dute.

Kargu hori bere gain hartzeko betekizunetik eta diziplina erantzukizunetik aske geratuko dira, laneko, familiako, akademia arloko, osasuneko edo antzeko arrazoiengatik euren funtzioak behar bezala betetzeko ezintasuna duten pertsonak.

III. KAPITULUA **HAUTESKUNDE ERROLDA**

16. Artikulua- Hauteskunde erroldaren edukia

Hauteskunde erroldan azaltzen dira hautesle eta hautagai izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak, betiere kendu ez bazaie, aldi baterako edo behin-betiko, Federazioan botoa emateko eskubidea.

Euskadiko Federazioko hauteskunde errolda osatzen dute Lurralde Federaziotako Batzorde Nagusietako pertsona kideek.

17. Artikulua- Erroldako inskripzio bakoitzaren edukia


Hauteskunde erroldaren inskripzioan barne hartuko dira, gutxienez, pertsona fisikoaren kasuan, izena, abizenak, nortasun agiri nazionala, sexua eta federazio lizentziaren zenbakia.

Pertsona juridikoaren kasuan, inskripzioak barne hartuko ditu, gutxienez, gizarte izendapena, identitate fiskalaren zenbakia, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroko inskripzio zenbakia eta federazio afiliazioaren zenbakia.

18. Artikulua- Hauteskunde erroldaren egitura

Hauteskunde errolda sekziotan antolatuko da estamentuen arabera.

Pertsona fisiko bakoitza sekzio batean inskribatuko da. Inor ezin izango da sekzio ezberdinetan inskribatu. Pertsona bat estamentu ezberdinetako federazio lizentzien jabe denean, horietako bat hautatu beharko du. Pertsona bat egoera horretan aurkitzen bada eta erroldaren behin-behineko onarpenaren aurretik eskubide hori betetzen ez badu, automatikoki lizentzia kopuru txikieneko estamentuan adskribatuko da.


 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Gazteria eta Kirol Zuzendaritza
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
 POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
 División de Juventud y Deportes

19. Artikulua- Hauteskunde erroldaren onarpena

Hauteskunde erroldaren onarpenerako, Hauteskunde Batzordeak kontuan hartuko ditu erroldak, fitxategiak, estatistika datuak, zigorren erregistroa eta Hauteskunde Batzordeak Federazioko administrazio organoari eskatzen dion gainerako dokumentazioa.

Hauteskunde Batzordea ez dago ahaldunduta federazio lizentziak ezeztatzeko edo baliogabetzeko, beraz, hauteskunde organo horrek kontuan hartu beharko ditu bidalitako federazio lizentzia guztiak, administrazio edo judizio bidean ezeztatuak edo baliogabetuak izan ez direnak.

Lurralde Federazioek kolaboratu eta bidali egin beharko dute, arreta handiz, Hauteskunde Batzordeak eskatutako informazioa eta dokumentazioa.

20. Artikulua- Hauteskunde erroldaren hedapena

Hauteskunde erroldaren hedapen zuzena bermatzeko, hura onartzen duen Hauteskunde Batzordeak agerian jarri beharko du iragarki-taulan, betiere hura behar bezala ezagutzeko beharrezko neurri osagarriak hartzea zainduz.

21. Artikulua -. Hauteskunde erroldaren inguruko alegazioak

Pertsona interesdunek bost egun naturaleko epea izango dute erabilgarri, Hauteskunde Batzordeak aldi baterako onartutako hauteskunde erroldaren inguruan alegazioak egiteko. Alegazio horiek Hauteskunde Batzordearen formulatuko dira eta hark ebatziko du alegazioa bidezkoa den edo ez, behin-betiko onarpenaren unean.

Hauteskunde Batzordearen errekurtsioak ebaztean eta hauteskunde errolda izenpetzean, ezin izango da haren inguruko inolako inpugnaziorik egin hauteskunde prozesuaren gainerako fasetan, prozesua amaitzean Kirol Justiziaren Euskadiko Batzordearen aurrean edo jurisdikzio bidean egin ahal izango diren inpugnazioei utzi gabe.

IV. KAPITULUA **POSTA BIDEZKO BOTOA**


22. Artikulua- Posta bidezko botoa

Inolako kasutan ez da onartuko posta bidezko botoa Euskadiko Federazioko hauteskunde prozesuan.

V. KAPITULUA **IKUSKATZAILEAK**

23. Artikulua- Ikuskatzaileen izendapena

Hautagaiek, adinez nagusiak izanik, gaitasun eta eskubide guztien jabe den edozein pertsonaren alde bozkatu ahal izango dute, hauteskunde jardueretan bere ordezkaritza dagokion ikuskatzaile bezala aurkezteko.



Ahalduntzea Notarian edota Federazioko Idazkaritzan egin beharko da, Batzorde Nagusiak xedatuari jarraiki.

24. Artikulua- Ikuskatzaileen funtzioak

Bere funtzioa bozketaren eta zenbaketaren jarduerak ikustera mugatuko da, eskubidea izanik dagokion aktan hauteskunde jardueraren garapenaren inguruan formulatu nahi dituen adierazpenak hala nola bozketaren eta zenbaketaren inguruko erreklamazioak jasotzeko .

25. Artikulua- Esku-hartze administratiboa

Hautagaiek izendatutako ikuskatzaile horien partaidetza, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 18 eta 19 artikuluetan xedatutako administrazio esku-hartzearen ahalmenei utzi gabe ulertzen da.

26. Artikulua- Hauteskunde Mahaiaren akreditazioa

Ikuskatzaileak euren egoera Hauteskunde Mahaiaren aurrean akreditatu beharko dute, euren ahalduntzea hala nola Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzeko dokumentu identifikatzailea erakustea zainduz. Hauteskunde Mahaiak bozketaren eta zenbaketaren lokalean egotea ahalbidetuko die.

VI. KAPITULUA **ERREKURTSOAK**

27. Artikulua- Errekurtsoen aurkezpena

Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen hitzarmenei aurkeztutako errekurtsoak Hauteskunde Batzordeari zuzendu beharko zaizkio, Kirol Justiziaren Euskadiko Batzordearen eskumenekoak izan ezik, bi laneguneko epean.


28. Artikulua- Errekurtsoen ebazpena

Hauteskunde Batzordeak ebazpena emango du errekurtsoa aurkezten denetik gehienez lau egun naturaleko epean.

Ebazpenak erabat edo hein batean balioztatuko ditu, edo bestela atzera botako ditu errekurtsoan formulatutako asmoak, edo horien ez onartzea adieraziko du.

Errekurtsoa ezarritako epean espresuki ebatziko ez balitz, atzera bota dela ulertuko litzateke, Kirol Justiziaren Euskal Batzordeko bidea zabalik geratuz.

Hauteskunde errekurtsoak ebazten dituzten Hauteskunde Batzordearen ebazpenek federazio bidea agortzen dute eta errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaie Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean.


 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Guterria eta Kirol Zuzendaritza
 DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
 POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA
 División de Juventud y Deportes

Eskumeneko organoen hauteskunde ebazpenen betearazpena Federazioko Hauteskunde Batzordeari dagokio, dagozkion federazio organoen kolaborazioarekin.

Hauteskunde Batzordearen erabakiak betearazleak izango dira.

Ekintza jakin batzuen ezeztapenak ekintzen eta izapideen kontserbazioa inplikatu du, eta horien edukia bere horretan mantenduko da betiere irregulartasunerako biderik eman ez denean.

Hauteskunde prozesuaren kontrola administrazio izaerako funtzio publiko bati dagokio, zein arbitrajearen eraginpean ezartzea ezinezkoa izango den.

VII. KAPITULUA

HAUTESKUNDE PROZESUAREN HEDAPENA

29. Artikulua- Hauteskunde prozesuaren hedapenaren inguruko Hauteskunde Batzordearen eskumena

Hauteskunde Batzordeak bermatu beharko du Federazioko pertsona kide guztiak hauteskunde prozesuaren inguruan behar bezala informatuta egotea eta haiei dagozkien eskubideak bete ahal izatea.

30. Artikulua- Administrazio organoaren betekizuna

Federazioko jarduneko administrazio organoak Hauteskunde Batzordeari eman beharko dizkio Federazioak eskuragarri dituen giza baliabideak eta materialak, helburua hauteskunde prozesuaren hedapena behar adinakoa izatera heltzea izanik.


31. Artikulua- Iragarki-taula eta kopiak

Derrigorrezkoa izango da Euskadiko Federazioko eta Lurralde Federaziotako iragarki-taulan hauteskunde prozesuarekin lotutako dokumentu eta hitzarmen guztiak agerian jartzea.

Federazioan hautesleentzat eskuragarri jarriko dira hauteskunde prozesuarekin lotutako dokumentu garrantzitsuenen behar adina kopia, esaterako egutegia, errolda eta hauteskunde araudia.

32. Artikulua- Publizitatea Interneten

Euskadiko Federazioko web orrialdean Hauteskunde Erroldaren, Hauteskunde Egutegiaren, Hauteskunde Araudiaren testuak eta interes orokorrari dagozkion Hauteskunde Batzordeko ebazpenak txertatuko dira. Hauteskunde ebazpenen publizitate hori, horietan aipatutako pertsonen ohorea eta intimitatea errespetatuz bideratu beharko da.


 EUSKO GOBERNARIA
 GOBERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAHIA
 Gaztaria eta Kirol Zuzendaritza
 DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
 POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA
 Dirección de Juventud y Deportes

33. Artikulua- Administrazioa zuzendutako jakinarazpena

Euskadiko Federazioak Eusko Jaurlaritzara bidaliko du Hauteskunde Erroldaren, Hauteskunde Egutegiaren eta Hauteskunde Araudiaren kopia bat, hauteskunde prozesuaren hedapen osagarria egiteko.

VIII. KAPITULUA **BATZORDE NAGUSIA HAUTATZEKO PROZEDURA**

34. Artikulua- Batzorde Nagusiaren eraketa

Batzorde Nagusia, Lurralde Federaziotako estamentuetako ordezkariak osatzen dute.

35. Artikulua- Batzorde Nagusiko kideak.

Euskal Saskibalo Federazioko Batzorde Nagusia 50 kiderekin osatzen da.

36. Artikulua- Estamentuen portzentajea

Euskadiko Federazioko Batzorde Nagusia, bere Estatutuen arabera, horrela banatzen da:

- | | |
|--|----------------------|
| a) Kirol klubetako eta elkartetako estamentua: | 38 ordezkari (% 76a) |
| b) Kirolarien estamentua: | 5 ordezkari (% 10a) |
| c) Teknikarien eta epaileen estamentua: | 7 ordezkari (% 14a) |

Teknikarien eta epaileen estamentuak dagokion ordezkaritza izango du Batzorde Nagusian, hauteskunde deialdiaren unean estamentu bakoitzean indarrean dauden lizentzien kopuruarekiko modu proportzionalan.

37 Artikulua.- Estamentuen edo pertsona hautagaien gabezia

Estamentu bateko pertsona hautagaien kopuruak esleitutako ordezkaritza minimoa lortzea ahalbidetzen ez duenean, hutsuneak proportzionalki gainerako estamentuetan esleituko dira.

Inolako kasutan, Lurralde Federazio bateko batzordekidea ez den pertsona edo erakunde bat ezin da bihurtu Euskadiko Federazioko Batzorde Nagusiko kidea. Era berean, Lurralde Federazio bateko batzordekide egoeraren galerak, hala badagokio, Euskadiko Federazioko batzordekidearen egoera galtzea eragingo du.

38. Artikulua- Bajak

Batzorde Nagusiko kideren batek hautatzean esleitu zitzaion egoera galduko balu, automatikoki Batzorde Nagusi horretan baja emango litzaioke.

Batzorde Nagusian dauden hutsuneak, hurrengo hauteskundeen aurretik, bajari dagokion estamentuko erakundeak (kluba, elkartea) edo pertsonak (kirolaria, teknikaria edo epailea) estaliko ditu, eta, aipatu Batzorderako hautatuak izan ez zirenen artean Euskadiko Federazioko

Batzorde Nagusirako Lurralde Federaziotako kide ordezkarien hautaketan boto kopuru handiena eskuratuko zutenak.

Aurreko paragrafoan aipatutako hutsuneak estaltzeko hautatuek, euren kargua beteko dute, hurrengo Batzorde Nagusiaren hauteskundeak ospatu bitartean.

Ordezkapenak gehienez hamabost eguneko epean egingo dira, dagokion hutsunea ezagutzen den unetik abiatuta; epe horretan Euskadiko Federazioko Idazkaritza Nagusiak zirkunstantzia horren berri emango dio Hauteskunde Batzordeari, honek kide berria aldarrikatu eta bere erabakia jakinarazi dezan.

Ez da onartuko Lurralde Federazio bateko hutsunea estaltzea beste Lurralde Federazio bateko ordezkariekin.

39. Artikulua- Hauteskunde deialdia

Hauteskunde deialdiari ekiteko, Presidenteak kargua utziko du eta Hauteskunde Batzordea ahaldunduko du hauteskunde prozesua abian jartzeko beharrezko hitzarmenak adosteko.

40. Artikulua- Lurralde Federazio bakoitzari esleitutako ordezkariak

Lurralde Federazio bakoitzerako ordezkarien esleipena Hauteskunde Batzordeari dagokio, hauteskunde deialdiaren hurrengo hiru lanegunen barruan.

Esleipen hori proportzionala izango da Lurralde Federazioek estamentu bakoitzeko dituzten kideen kopuruarekiko, Euskadiko Federazioaren osotasuna kontuan hartuta.

Euskadiko Federazioko erroldaren osotasuna Lurralde Federaziotako errolden baturarekin egokituko da.

Ordezkariei esleipen hori hauteskunde jardura da eta, ondorioz, Hauteskunde Batzordearen aurrean errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio.


41. Artikulua- Ordezkariei esleipenaren jakinarazpena eta hedapena

Ordezkariei esleipena modu frogagarrian jakinaraziko zaio Lurralde Federazio bakoitzari eta Euskadiko Federazioko zein Lurralde Federaziotako iragarki-taulan ezagutzera emango da.

42. Artikulua- Lurralde Federaziotako ordezkarien hautaketa

Lurralde Federaziotako Batzordeek, Lurralde Federaziotako ordezkarien jakinarazpen ziurtatua egiten denetik, gehienez 30 eguneko epean ospatuko dituzte hauteskundeak, bere estamentuetako ordezkariak esleitzeko, dagokion berrikuntzaren ondoren ospatzen den lehenengo bileran.

Lurralde Federazio bakoitzeko Presidente Jaun/Andreari dagokio bere batzordekideengana deialdia luzatzea, bere ordezkarien hautaketari ekiteko. Estamentu bakoitzak dagokion bozketa ospatuko du.



Lurralde Federaziotako Batzordetan hautatutako Euskadiko Federazioko Batzorde Nagusiko pertsona kideak haietako kideak izan beharko dira.

Ordezkeri horien bozkatzeko jarduerak Euskadiko Federazioko Batzorde Nagusia eratzeko hauteskunde jardueratzat hartzen dira, eta ondorioz, horien legezkontasunaren kontrola Euskadiko Federazioko Hauteskunde Batzordeari dagokio.

43. Artikulua- Batzorde Nagusiko kideen aldarrikapena

Lurralde Federaziotako Batzordetako azkena ospatu eta hurrengo egunean, Hauteskunde Batzordeak Hauteskunde Batzordeko kideen aldarrikapenari ekingo dio.

IX. KAPITULUA **PRESIDENTEA HAUTATZEKO PROZEDURA**

44. Artikulua- Hautesleak

Presidente hautatzeko hauteskunde gorputza Batzorde Nagusi osoak eratuko du.

Presidentzia betetzeko hautagarritzat hartuko dira Batzorde Nagusiko kideak diren pertsonak, federazio estamentuetako ordezkari modura.

Ezin izango du Batzorde Nagusiko pertsona juridikoaren ordezkaritza bete, aldi berean beste estamentu bateko kidea izaten denak.

Batzorde Nagusiko pertsona juridiko kideen ordezkaritza, presidentzia betetzen duenari edota ordezkaritza hori modu frogagarrian akreditatzen duen pertsonari dagokio. Ordezkaritza hori egiaztatzeko, nahikoa izango da kirol klubeko edo elkarteko idazkariak emandako ziurtagiri bat aurkeztea, Presidente Jaun/Andreak ontzat emana, zeinetan adieraziko den presidentearen identitatea edo kirol erakundearen ordezkaria izateko esleitua izan denarena.

Federazioko presidentea izateko hautatutako pertsonak Batzorde Nagusiko kidea izateari uzten badio, bere karguan mantendu ahal izango da agintaldia amaitu bitartean, Batzorde Nagusian hutsunea bete behar izateari utzi gabe.

45. Artikulua- Kandidaturak aurkezteko epea

Batzorde Nagusiko behin-betiko kideak aldarrikatzen direnean, Presidentziarako kandidaturak aurkezteko epea zabalik geratuko da, gutxienez zazpi egun naturalekoa izanik.

46. Artikulua- Kandidaturen aurkezpena

Kandidaturen aurkezpena Hauteskunde Batzordeak ofizialki onartutako inprimakietan egin beharko da.

47. Artikulua- Kandidaturen onarpena

Kandidaturak aurkezteko epea amaitzean, Hauteskunde Batzordea bilduko da bere onargarritasuna ebazteko, bi lanegunen epean.



Kandidaturen onartzeari edo ez onartzeari errekurtsua aurkeztu ahal izango zaie Hauteskunde Batzordearen aurrean, bi lanegunen epean, eta hark bi lanegunen epean emango du ebazpena.

Kandidaturaren batek zuzentzeko moduko akatsak badakartza, jakinarazitako akatsak zuzentzeko eskatuko zaio, bi lanegunen epean.

48. Artikulua- Batzorde Nagusiaren deialdia eta garapena

Behin-betiko kandidaturak onartzean, jarduneko Presidenteak deialdia luzatuko dio Batzorde Nagusiari haren eraketa formalerako eta kandidaturen bozketarako. Deialdi hori luzatu egingo da, dagokion hauteskunde egutegian Batzorde Nagusiaren ospakizunerako data jadanik azaldu arren.

Batzorde Nagusia eratzean eta Hauteskunde Mahaiko Presidentziak saioa zabaltzean, hautagai bakoitza hitzaz baliatu ahal izango da bere programa defendatzeko, gehienez hamar minutuko epean.

49. Artikulua- Bozketa

Bozketa estamentuen arabera egingo da eta Hauteskunde Mahaiko Presidentetza betetzen duenak Batzordeko kide bakoitzari bere izenez deituko dio, hautatutako kandidaturaren txartela xede horretarako erabilgarri jarritako hautestontzian sar dezan.

Botoa sekretua izango da, eta Hauteskunde Batzordeak emandako txartel ofizialaren bidez emango da. Bozketeko, identitatea akreditatu beharko da nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaimena edota identifikatzeko balio duen bestelako dokumentu bat aurkeztuta.

Pertsona juridikoek ziurtagiri bat aurkeztuko dute, erakundeko idazkari jaun/andreak emandakoa, presidente jaun/andreak ontzat eman ondoren, erakundearen lege ordezkariak betetzen dutela edota bozketetarako ahalduntzea eskuratu dutela akreditatzeko.


Izapide hori betetzeko, boto emaile bakoitzak txartela entregatuko dio Hauteskunde Mahaiko Presidenteari, eta hark txartela dagokion hautestontzian sartuko du.

Ez da onartuko Batzorde Nagusiaren baitan botoa eskuordetzea, ezta posta bidezko botoa ere. Kirol klub edo elkarte bateko pertsona fisiko ordezkari bakar batek ezin izango du beste kirol klub edo elkarte bateko ordezkariarik bete.

50. Artikulua- Zenbaketa

Bozketa jarduera amaitzean, Hauteskunde Mahaiak botoen zenbaketari ekingo dio.

Baliogabeak izango dira Hauteskunde Batzordeak onartutako eredu ofizialarekiko gutun-azal edo txartel ezberdinekin emandako botoak hala nola gutun-azalik gabe edota kandidatura ezberdineko txartel bat baino gehiago dakartzaten gutun-azalekin emandako botoak. Gutun-azalek txartel bat baino gehiago badakartzate, boto baliotun bakar modura zenbatuko da.



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

Gaztaria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
División de Juventud y Deportes

Halaber baliogabeak izango dira bertako izenak aldatuta, erantsita, markatuta edota urratuta edo hurrenkera aldatuta dakartzaten txartelak, baita beste edonolako eraldaketa jasandako gainerako txartelak ere.

Boto zuritzat hartuko dira txartelik gabe edo txartel zuriekin datozen gutun-azal guztiak.

51. Artikulua- Kandidatura irabazlearen erabakia

Garaile aldarrikatuko litzateke boto baliodunen gehiengo sinplea eskuratuko lukeen kandidatura.

Federazioko Presidentetza beteko du hautatua izan den pertsonak.

52. Artikulua- Berdinketa

Boto berdinketaren kasuan, zenbaketaren jarraian bozketa berri bat ospatuko da. Bozketa berrian boto kopuru berdina eskuratu duten lehenengo kandidaturak soilik izango dira partaide.

Berdinketa mantentzen bada, emakumezko zerrenda-burua dakarren kandidatura lehenetsiko da.

Berdinketa mantentzen bada, Hauteskunde Batzordeak berdindutako kandidaturen arteko zozketari ekingo dio, gehienez zazpi eguneko epean.

53. Artikulua- Kandidaturen gabezia

Kandidatura bakar bat aurkeztuko ez balitz, Hauteskunde Batzordeak kandidaturak aurkezteko epe berri bat zabalduko luke.

Bigarren epean ere kandidaturarik aurkeztu ezean, Hauteskunde Batzordeak egoera hori jakinaraziko lioke Federazioko jarduneko presidenteari, Ezohiko Batzorde Nagusi baterako deialdia luzatu dezan, Federazioa desegitea adosteko.

54. Artikulua- Kandidatura bakarra

Federazioko Presidentziarako kandidatura bakarra dagoenean, ez da beharreako izango bozketa ospatzea eta Hauteskunde Batzordeak aurkeztutako hautagaia aldarrikatuko du Federazioko Presidente modura.

55. Artikulua- Zenbaketaren akta

Bozketaren garapena amaitzean, Hauteskunde Mahaiak zenbaketa akta idatziko du, ahalik eta azkarren bidaltzeko, boto txartelekin batera, Hauteskunde Batzordera.


Kandidaturetako ikuskatzaileek eskubidea izango dute dokumentu horren ziurtagiria eskuratzeko, eskatzen badute.

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud y Deporte

Hauteskunde Batzordeak, akta jasotzen duenean zenbaketaren emaitzarekin eta bozketako gertakariekin, Federazioko Presidentea izateko kandidatura garailearen zerrenda-burua izaten denaren behin-behineko aldarrikapena egingo du.

Hurrengo bi lanegunetan, Hauteskunde Batzordeak ezagutzera emango ditu Euskadiko Federazioan eta Lurralde Federaziotan argitaratzeko behin-behineko emaitzak, bertan horien inguruko errekurtsioa aurkezteko aukera izanik; ebazpena lau egun naturalen buruan emango da, behin-betiko emaitzekin.

Kandidatura garailearen behin-behineko aldarrikapena egitean eta ebaztean, bere kasuan, aurkeztutako erreklamazioak edo errekurtsioak, behin-betiko aldarrikapenari ekingo zaio. Une horretatik aurrera, kargu hautatuak bere funtzioak bete ahal izango ditu, karguaren jabe egiteko ekitaldi formalaren beharrik izan gabe.



AURKIBIDEA**ARTIKULUAU**

<u>I. KAPITULUA</u>	XEDAPEN OROKORRA	1 - 3
<u>II. KAPITULUA</u>	HAUTESKUNDE BATZORDEA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA	4 - 15
<u>III. KAPITULUA</u>	HAUTESKUNDE ERROLDA	16 - 21
<u>IV. KAPITULUA</u>	POSTA BIDEZKO BOTOA	22
<u>V. KAPITULUA</u>	IKUSKATZAILEAK	23 - 26
<u>VI. KAPITULUA</u>	ERREKURTSOAK	27 - 28
<u>VII. KAPITULUA</u>	HAUTESKUNDE PROZESUAREN HEDAPENA	29 - 33
<u>VIII. KAPITULUA</u>	BATZORDE NAGUSIA HAUTATZEKOPROZEDURA	34 - 43
<u>IX. KAPITULUA</u>	PRESIDENTEA HAUTATZEKO PROZEDURA	44 - 55

